

Negua

Urtea joan da eta urtearekin gu ere ba goaz. Negua bortizki hasi zaiku, orain arte ongi ginazin eguraldi ederrez goxatuz baina neguak erakutsi beharko du bere sasoñean dagola.

Ortoska ari izana da eta horrekin adierazten baitu ekaitza datorrela eta elurra ere hain segur, gure mendiak maiz xuriz apaindurik agertuko direla. Gu ere geren biziaren neguan sarturik aspaldion eman ginaben azken agurra, udaberri, uda eta orain udazkenari, gure biziaren neguan sartu baigara. Gizadiaren bizi horrela da Jainkoak mundu hau egin zutenetik eta aintzinat ere holaxe jarraikiko Jainkoak nahi duen arte. Bertsolariek ere badauzkate bertso bereziak neguari emanak eta hoietan adierazten baitute neguaren maltzurkeriak. Hemen erakutsiko ditut zenbait bertso neguari buruz emanak. Manuel Lasarte leitzarrak Euskalerrriak izan duen bertsolari haundienetako bat.

Negua zuk biota indartsu daukazu, udaberrira arte nork errenditu zu? Arbola zar guziak igartzen dituzu, kristauak ere oso bildurtzen gaituzu

Naigabe asko dira zugandik sortuak, etxeko aitona ta amona zartuak, arkitzen dira zuri bildurra artuak, amaika badituzu lurpean sartuak

Baserritan ez daude zurekin artuak, sorotako arbiak dira izoztuak, belar onduak janak, ganbarak ustauk, Naparruan dirua eingo du lastoak.

Aize otz orrek ere indar pranko badu, utsa litzake emen falta egingo balu, ori lurperatzia balitz nere kargu, enterratuko nuke zortzi egun barru.

Bildurrak arrapatzen gaitu negurako, eguna pixkat moztzen asi ordurako, alare ez dizu zuri asko ardurako, ai zer laguntzaillea bizimodurako.

Errexa da zarrari odolak oztutzen, ura ekaitzak ez du geiegi poztutzen, negua asten bada adarrak moztutzen, arbol zara're ez da berriro piztutzen.

Negua beti bizi zera gorrotuan, emen gaude debillak iya larrutuan, ez dakizu bildurra zenbat zarrek duan, nola ibiltzen zeran oioen karretuan.

Etzaitezte arritu nere pentsamentuz, zartu naiz ta jantzia nago eskarmentuz, negua zer dan orra, nik azaldu kantuz, obe degu orrekin ibiltzia kontuz.

M. Izeta

Deabrua beti berdin. Aldakaitza bait da. Kas ere beti berdin.

Bearbada, asarretuko zait norbait, KAS'eko «abertzaleei» deabru deitu dietela esanez. Nola deitu, gelditzeke gaiztakeri makurak egiten ari dirane.

Abenduaren 16'a da. Biar eman-go diote lur bere errian, Badajoz'ko Merida'n eranegun Lasarte'n tiro koldarrez ETA'k erail zuen Donosti'ko udaltzainen sarjentoari.

Orrelako deabrukeriak egiten dituztenek jex al dute deabru izena merezi?

Eraiketa ori, len egin direnak eta, zori txarrez oraindik egiñen direnak, KAS'ek aurretik prestatuak eta aginduak dire, gauza jakina bait da, ETA'ren eta HB'ren burua dela KAS.

Berealaxe ulertuko duzu guzti ori:

Abenduaren lenengo egunetan batzar bat egin-berria du JARRAI izenare kin agertzen den KAS'eko gaztediak. Kamio'tar Joseba eta Zubimendi'tar Mikel «kasianoak» zuzendari zituela JARRAI'k egindako batzar ortan artutako erabakien papera gaur bertan iritxi zait aintzuzen, eta, Euskal Telebistaz, Donosti'k bere sarjento tiroz illari eskeintzen zion omenaldia ikusten ari nintzela irakurri dut eraiketa ori egin dutenen papera.

JARRAI'tarren papera, eraiketa ori, eta orain arte ETA'k egin dituen eraiketa guztiak eta oraindik egingo dituenak onestera, ots, justifikatzera datorkigu.

Aurreneko gauza, «eraiketa oiek bearrezkoak, naitanaiezkoak, direla esatea du», («la lucha armada de ETA y de IK son una necesidad»). IK Iparraldeko ETA dela jakinik egongo zera noski.

Zertarako dan borroka armatu ori bearrezkoak? Euskalerrriak bere «autodeterminazioa», «burujabetza» («soberanía»), eta bere «lurralde



osoaren alkartasuna» lortzeko.

«Kasianoak» oartu dire gaztedia antimilitarista dela. Ikusi dute, noiz-bait, kaleetan gaitegun bota oi dituzten «gora ETA militarra» oiek gaztedia urrutzen dietela. Eta bai al dakizute arazo mingarri ori konpontzeko zer asmatu duten? ETA militarren borroka armatua borroka militarra ez dela esatea.

Geiago oraindik! ETA militarren borroka armatua borroka militarra ez izateaz gainera «borroka antimilitarra ere bai omen da!» (las luchas armadas de ETA y de IK podrían considerarse como antimilitaristas. Arrapazak!

Baiña... euskaldunok eroak gerala edo tonto biurtu gerala, zer pentsatzen ote dute Kasianoek orrelako txepelkeriak esanez guregana etortzeko. ETA militarra, ETA militarra ez da. Bere borroka militarra ez da militarra.

ETA'ren borroka armatuaren elburua Euskalerrriarentzat «demokrazi osoa» lortzea omen da, eta orregatik ETA'ren borroka militarra «borroka demokratikoa» omen da.

Ez nuan sekulan pentsatu jendea-ri buruan atzetik tiro bat ematea, edo azoka-tokien barruan izkutaturik bonba bat uztea, demokrazia egitea zanik. Zuk ere ez noski, baiñan zuk ez bait dakizu «demokrazi osoa», ots, «demokrazi komunista» zer den.

Zuk eta nik, demokrazia tiroka ez baiña autarki edo botoen bidez egiten zela uste genuen; eta orrela uste zuen, kasianoak izen ezik Euskalerrri guztiak ere.

Baiñan zuk, eta nik, eta Euskalerrri guztiak ez giñakigun komunistek demokrazia nola egiten duten. Orain ikasi dugu.

Ikasi du Donosti'ko udaltzainen sarjento gaixoak ere.

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Bataioa, kristauaren nortasuna

«Jesus ere bataiatu egin zen» (Lk.3,15-16,21-22)

NORTASUNAREKIN bizitzeak asko balio du. Nortasuna bearrezkoa da. Nondik datorkigu nortasuna?

Gogoan dut Joxemiel Barandiaran jakintsuak egin zigun ausnarketa eta gogoeta 100 urte bete zituenean bisitatzen joan gintzaizkionean: Nere ikasketa eta ikerketa guztiak gizakiaren nortasunaren inguruan egin ditut. Galdera aukeratu naute beti: Zer gera? Nondik gatoz? Nora goaz?

Gizakia galdera oieri erantzuna ematen dien neurrian eldutasuna eta nortasuna lantzen ari da. Bearrezkoa zaio gizon-emakumeari bi maillatan edo bi arlotan eldua izatea: giza maillan eta espiritu maillan. Biak dira garrantzitsuak, biak dira inportanteak, biak zaindu bearrezkoak. Zaila egiten zaigu bien arteko oreka sortzea. Askotan bata geiago lantzen dugu bestearen kaltetan.

Bataiatua izanak sinistea eskatzen du. Eta sinistearen arrazoiak ematea dagokigu. Ez da noski, fedea bizitzea naiko, komunikatu ere egin bear dugu.

Bataioari esker guztiok berdiñak gera. Guztiok gera profeta, errege eta apez. Ortik kanpo sortzen dira ika-mika guztiak, naiz teologikoak izan, iritzi maillakoak dira.

Gure Erria, fedea kolokan bizi duen erria da. Beraz, bizi dugun fedea ez da bataioaren konpromisotik sortzen dan fedea. Gazteek ez diote garrantzirik ematen fede-bizitzari, nola emango diote bataioari?

Dena den, gotzaiñek egin zuten galdera gogoratzea ez litzaiguke gaizki etorriko: «Posible ote da gaurko munduan itxaropenik esnatzea?» Fedetik urrun samar bizi diren oiengan alako bizi-poza ezezik, fedeak berak ematen dituen duintasuna eta konpromisoak berreskuratzeko aalegin oro egitea dagokigu eliztarroi.

Ez da, noski, sinisten ez dutenak edota, bataioa aazturik dutenak, praktika batzuen bidez elizaratzea. Ez, ori ez da asuntua, ori ez da inportantea.

Bataioa bizitzeko eta ortik datorkigun konpromisoari aurre egiteko, elkartearen babesa ezinbestekoa jotzen dut nik. Eta emen egon daiteke gakoa: Nolakoak dira gure kristau elkarreak?

Benetan gure bataioa biziko bagenu, Jainkoa gizakiaren adiskide eta Salbatzaillea dela aldarrikatu edo otsegin bearko genuke.

Bataioaren konpromisoak Jainkoa gizakiarentzat Berri On dela zabaltzera bultzatzen gaitu. Jainkoa gizakiaren alde dagoela adierazi bear dugu, eta berau zapaltzen eta menpeko egiten duen gaitz ororen aurka.

Bataioan ere gure antzeko egitea nai izan zuen Jesus-ek. Bataioarekin asi zen Jesus Jainkoaren Erreinua otsegiten eta zabaltzen. Orduan egin zen egiazko predikari. Gu, zergatik ez?

Artzalluz'tar Joxemari

Barañain'en Aize lagunartea

Itzaldi bat ematera deitu ninduten, joan den urtean, Barañain irira, Iruña ondoan. Gero sari berexi bat bezala, bertan daukaten lagunartea afaltzera joan giñen; biltokiaren izena AIZEA da. Gela eroso ura giza-emakumez bete zegoen. Euskal giroa ta zaletasuna ezin ohea. Afaria berriz atsegiña nafar ardoarekin. Makiña bat euskaltzalekin mintzatu nintzen.

Batzuek etzekiten euskaraz. Ezin dugu aztu Barañain iriak emezortzi milla biztanle ditula eta oyetik iru milla euskaraz dakitenak. Euskaldunberri aunitz dituzte ta aberi euskaraz egiteko aukera emate arren, AIZEA lagunartean, mai berexi bat daukate, bertze batzuen artean, euskaltegiko maya izeneko. An exeri ezker, naitanaiz euskaraz egin bear. Euskaraz bakarrik mintzatu nai dutenak antxe biltzen dire, iñor iraundu gabe. Erabaki polita euskara laguntzeko ta denak lasai elkarrekin egoteko. Eredu ederra bertze erri aunitzentzat. Elkarte ontan IÑAUTERIK ere, batean ospatzen dituzte, baita OLENTZERO'ren jaialdia. Bertsolariaren sayoak ere izaten alegintzen dire.

Udaletxean mayatza eta ekainan, euskal kultur sailleko ekintza berexiak euki dituzte: euskal jolasak, kalejirak, abesbatzak, itzaldiak eta antzerkiak euskaraz. Lana amaitu ondoren, denak AIZEA lagunartera eramane dituzte. An arkitu dute giro egokia ta atsegiña, euskal anaiartea.

Kulturako aste oyen burua ta giltzarri gizon gazte bat dugu, euskaldunberri, Mikel Erdozain izeneko. Sua ta odol beroa dauka; as-



palditik euskararen langille egokia, gizon atsegiña. Eman dizkiote jipoi ederrak euskal abertzaletasunarengatik. Iruña'n 1945'garren urtean jaio zen. Aita Legardatarra zeukan, ama Irunberri'tarra. Gazte garaian JOC delako elkartearen lana egin zuen. 1963'garren urtean EGI taldean sartu zen, baita Eusko Baste-rra dalakoan. Garai artan, Iruña'n euskal gayekin itzaldi batzuek antolatatu zituzten. Gauza aundi bat bezala «Navarrería» delako auzoan, bertako jaialdietan, euskal kutsua sortzen alegindu zen. Euskarazko ikastaroa egiten asi ziren. Naiko lanak artu zituen abertzaletasuna sortzen, baita ikurriña agertzen. Azkenean bi urte egin zituen espetxean, baita eraso ederrak artu. Espetxetik aterata, atzetik poli-

ziak zeuzkala jakinta, Aragoi'ko menditik barrena, anka egin zuen erbestera.

1970'garren urtetik 1976'garren urtera Bayona'n bizi da. Antxen ezagutzen du Laya. 1976'garren urtean Iruña'ra dator eta 1977'garren urtean Alsasuko abertzalen maya sortzen denean, antxen dago alai aski. Ezin asma alezko zoriona lendabiziko Udalaren auteskundeak: Iruña'ko Udalaren abertzalen alderdia aurrea. 1984'garren urtean Barañain'go Udalako maikide izendatzen dute. Gaur arte iraun du lan eder ortan. Mikel Erdozain dugu Nafarro berrian abe sendo bat.

Barañain'go euskararen zabal-kundeak zor aundiak dizkio.

Latxaga